

N PROIEKTUA

Gezurra dirudien arren, nerabeok gara gehien aspertzen garenak, batez ere 14 eta 16 urte bitartekoak, hiri txiki honetan. Parkeetarako helduegiak gara, gurasoek arraro begiratzen gaituzte eta kolunpioetatik botatzen gaituzte; dantza-lekuetara eta pubetara joateko desegokiak gara. Ez dakigu zer egin Gasteizen.

Asteburuetan ez dugu ezer egiteko eta, egiten dugun bakarra, gure lagunekin parkera, Bulebarrera edo erdialdera joatea da.

Parkera iristean, umeen gurasoek arraro begiratzen gaituzte, esaten digute alde egiteko, parkea ume txikientzako dela eta gu dagoeneko oso nagusiak garela.

Bulebarreko *findeen* asperdurarekin jarraituko dugu. Gaur egun nerabeok egiten dugun gauza bakarra *Burger King*-era joatea, dendaz denda begiratzen ibiltzea edo zinemara joatea da; hiru gauzak ez dira batere merkeak.



Erdialdean ere gure aukerak ez dira askoz gehiago, *Pinkera* joatea eta Andre Mari Zuriaren enparantzako banku batean esertzea, edo taberna batera zerbait hartzea joatea. Dendak eta beste guztiak adinekoentzako lokalak dira. Diskoteketarako gazteegiak gara, eta ez dago arratsaldea pasatzeko guretzako



moduko *puberik* ere. Egoera honek ondorioak ekartzen ditu. Onena, eta nerabe gehienok egiten duguna, etxean geratzea da, baina gure gurasoek liskarra sortzen digute, *play*-arekin edo mugikorrarekin aritzeagatik edo lotan geratzeagatik. Beste batzuk, ordea, asteburuak ezkutuan pasatzen dituzte, erretzen, batzuk drogatzen ere bai. Nahiz eta oso eroa dirudien, gurasoei ez zaie buruan sartzen. Badira *pubetara* joaten direnak ere, eseri eta katxinbak erretzera sartzen uzten diete, eta, beste batzuen kasuan, egun edo

aukera berezietan, beren NANak falsifikatzen dituzte leku horietan sartu ahal izateko. Gurasoek uste dute beren seme-alabek ez dutela inoiz edan, baina ez dakite leku askotan eros dezaketela, nahiz eta adin txikikoak izan, eta tabakoa bezala *vaper*-ak, adina galdetu gabe.

Azken aukera bezala auzoan geratzen gara, banku batean eseri eta aspertu, azkenean etxera nahiko goiz joateko.

Gurasoak garrantzia kentzen saiatzen dira, haiek egiten zituzten gauzak kontatuz. Lagunekin aspertzea eta kanikekin jolastea ez dela gehien desiratzen duguna ulertu behar dute, garaiak aldatu egin direla.

Horren ondorioz, alboko hiri handietara joatera bultzatzen gaituzte, bertan, adin txikikoentzako *pubak*, bolera, billarrak aurkitzen batitugu. Hala ere, askotan gure gurasoek ere ez digute uzten, haien ustez helduentzako kontuak direlako.

Honegatik guztiagatik, jai txiki bakoitzera irten nahi izaten dugu, bai auzokoetara, zein hiritik gertu dauden herrikoetara. Diotenez, aitzakia gisa, gure adinaren aurretik gabitza, gauza batzuetarako oso gazteak gara, eta ez digute baimenik ematen horietara joateko.

Helduen artean asko entzuten da: "nola datozen generazio berriak!". Eta, izan ere, zaharrenek egiten dituzten gauza berberak egiten saiatzen gara, besteak beste, lehen aipatu ditugun gauzak, hala nola edatea, erretzea, festarik festa ateratzea...

Honen guztiaren ondoren, hori konpontzeko egin genitzakeen gauzetan pentsatu dugu, eta 14-17 urte bitarteko nerabeentzako klubak eta *pubak* sortzea da, non hotzik pasatu gabe egon gaitezkeen, jende berria ezagutzen eta denetaz ikasten.

